

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko uztailearen 7a. VIII. urtea. 2.257. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Leitzako hiru gazte izan dira Auzitegi Nazionalean deklaritzen

Jone Lozanoren atxiloketaren ondoren identifikatu zituzten, eta Madrilén izan dira; irailean jakingo dute zer leporatzen dieten **02**

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko elkarretaratzeak egin dituzte

Tolosako Trianguloan eta Leitzako Lopeneko atarian egin dituzte, Mundu Martxak deituta **03**

Berastegiko baratze, terraza eta lorategiek saria izango dute

Udalak hirugarren goz antolatu du terraza eta lorategien txapelketa, eta bigarren goz baratzena; bederatzi sari banatuko dituzte **07**



→ **Aragoiko Binefarretik Tolosara.** Paco Parciok eta Pilar Amorsek orain 30 urte sortu zuten Binefarreko titiriteroen konpainia. Orduetik sari eta izendapen ugari jaso dituzte, besteak beste, euren lanean agertu duten duintasunarengatik. Txo-txongiloen erakusketa urriaren 2a bitarte ikusi daiteke Tolosako Topic zentroan. **05**


www.funerariavascongada.com

Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI eta SULABEA

24 H..
943 694 873





Herenegun elkarretaratzea egin zuten Leitzan, gazteei elkartasuna azaltzeko asmoz. HITZA

Auzitegi Nazionalan izan diren gazteek «gogorra» izan dela esan dute

Jone Lozano aresoarraren atxiloketaren ostean sei gazte identifikatu zituen Guardia Zibilak

Asier Imaz Leitzza

Hiru gazte leitzar Espainiako Auzitegi Nazionalan egon ziren herenegun, euren gurasoekin batera, Adin Txikikoen Aretoran. Atzo, berriro ere Leitzan, «Madrilera ez bueltatzeko sentsazioarekin» iritsi direla zioten. «Oso gogorra izan da, luzea eta nekagarria; denbora gutzia esperoan: itzultzaileak noiz bukatuko, kanpoan ere zain...».

Bidaia goizean goiz hasi zen, Madrilerara trenez joan baitziren. sanferminak tarteko, bidaia «azken bagonaren azkeneko aulkietan» egin zutela zioten. Leitzatik sei guraso eta hiru seme-alaba joan ziren Espainiako Auzitegi Nazionalera. Lehenik, fiskalaren galderei erantzun behar izan ziren, eta ondoren, psikologoenei. Beti ere, banaka: «Gurasoak sartzen ziren, gero seme-alabak, denbora asko esperoan eta... presioa, presio handia».

Fiskalarekin denbora gutxi egon ziren gazteak: «Fitxatu gin-

tuzten egunean gertatu zenaz galdetu zigun. Lau galdera edo egin zizkigun. Ondoren, gure abokatuaren galderak erantzun genituen».

Behin hori amaituta, hasieran «errazena» zirudiena, «gogorre-na» bilakatu zen: psikologoaren galdeketa. Hiru emakume galdeka, leitzar bat erantzuten, eta ondoan itzultzailea. Gazteek honela gogoratzen dute bertan bizitako: «Okerrena hori izan zen. Ordu t'ardi edo bi ordu pasa genituen bakoitzak berarekin, eta galdera oso-oso pertsonalak egiten zituzten. Familia guztia atertzen zuten, eta gainera, aurretik erantzunak ikasita zituzten. Beti nahastan saiatzen ziren gainera: ez zutela ulertzen kartelak zergatik jarri genituen eta abar». «Galdera batzuk tontakeriak ziren, zentzugabekoak, engainatzeko egiten zituzten: *oyes voces en tu cabeza* eta horrelakoak. Edo, *si supieras que una persona es de ETA, le mirarias con la misma cara*. Eta zer erantzun behar zenion? ETAkoak nortzuk diren ez dakidala esan nion».

Joan etorria egin ondoren, esperoan aurkitzen dira hiru gazteak. «Gutxienez hilabete itxaron beharko dugu. Horrela ez bada, irailean jakingo dugu zer edo zer. Hala eta guztiz ere, abokatuaren

esanetan, bi edo hiru hilabeteren inguruan ez badigute abisatsen, kasua aurrera ez doalako izango da».

Identifikazioak

Jone Lozano aresoarra 2011ko martxoaren 21ean atxilotu zuen polizia Frantzia, ETAko kidea zelakoan. Hurrengo egunean, 22an, hiru gazte identifikatu zituen Guardia Zibilak Leitzan, herri batzarrerako eta elkarretaratzerako deialdia egiten ari zirenean. «Dokumentazioa eskatu zituzten, kartelak kendu eta denuntzia bat iritsiko zela esan ziguten», diote gazteek.

Ondoren, gaztetxeak antolatuz Atekarock ekimenaren kartelak jartzen ari zirela, Guardia Zibilak beste hiru gazte identifikatu zituen Leitzan, Lozanoren argazkia karteletan agertzen omen zelakoan. Denboran zeri-kusirik ez duten bi gertaera hauek, zaku berean sartu zituen Guardia Zibilak, eta identifikatutako sei gazteak Leitzako kuartelera deitu zituen. «Etxera etorri ziren, gauetz, 23:00etan, apirilaren 16an Leitzako kuartelera joan behar genuela esanaz», diote gazteek.

Kuartelera seiak azaldu ziren abokatuarekin; adin txikikoek eu-

ren gurasoak ere eraman zituzten. Banaka-banaka sartu ziren barrura. Leitzarren esanetan, Guardia Zibila polizia fitxa irekitzen saiatu zen, baina abokatuak hori ezin zutela egin erantzun zien. Gauzak horrela, ea deklaratu behar zuten galdetu zien, eta ezetz erantzun zuten gazteek. «Goiz gutzia bertan pasa behar izan genuen, baina, euren nagusiak esan zigunez, auziak ez zuten garrantzia handiegirik. Hori esan zigunean, ea zertarako eraman gintuen hara pentsatu genuen, zergatik ez zuten paper hura zakarrontzira bota?».

Adin txikiko hiru gazteei, postariak argitu zien zalantza: «San Joan egunean ekarri zigun Telegrama. Auzitegi Nazionala... ez dakit zer, eta adin txikikoen fis-kaltzara, Madrilerara, joan behar genuela».

«Herriko gazteen aurkako jazarpen itsua eta kriminalizazioa» salatu dute

Leitzan dagoen elkartasunak «errepresioa garaituko duela» esan dute elkarretaratzeetan

A. Imaz Leitzza

100 herritar elkartu ziren herenegun Leitzan, 19ko taldeetan elkarretaratzeak egiteko. Euren helburua argia zen: Auzitegi Nazionalera joan ziren herritarrei babesa eta elkartasuna azaltzea.

Bertan agertutakoek azaldu zuten, «sei gazte hauetatik hiruk, adin txikikoak hirurak, Madrileko Auzitegi Nazionalako Adin Txikikoen Aretora deklaratzera joan behar dute terrorismoari gorazarre egitearen akusaziopean. Behin eta berriz kriminalizatzen gaituzte, baina Leitzan dagoen elkartasunak errepresioa garaituko du. Elkartasuna balore indartsua da, kriminalizatu eta zigortua izateko. Euskal Herrian beti izan da elkartasuna injustizia bizi duenarentzat».

Euskal presoaren argazkien aurkako «sorgin ehiza» ere salatu zuten: «Presoen muturreko bizi baldintzen salaketa, sakabanaketa eta errepresioa bera salatzea delitu bihurtu dituzte. Argazkiak aitzakiatzat hartuz, euskal presoekiko elkartasuna gure herriko txokoetatik ezkatatu nahian sei gazte auzi bidean jarri dituzte. Guardia zibilen aldetik Leitzako gazteen kontrako jazarpen itsua eta kriminalizazio saiakera hau ere salatu nahi dugun».

Azkenik, herenegun egindako elkarretaratzeak «gazte hauei eta beren familiei elkartasuna adierazteko» egin zituztela azaldu zuten.



19 lagunek taldetan elkartu ziren Leitzan. HITZA

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalarna etorb. 13 behe - TOLOSA
Mag.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan. Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, kumuna, egongela-jangela handia,

sukaldea, 2 autorentzako gara-jea, txokoa eta jardina. Interesatuek deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

Txotxongiloak barrutik ezagutzeko aukera izango da

Bihar eta etzi, Galitot Teatre talde kataluniarrak 'Los Títeres' jarriko du Euskal Herria plazan

I. Urkizu Tolosa

Bartzelonako Galitot konpainiak, txotxongiloen antzerki munduari eskainitako jolas-eremu bat sortu berri du. Tolosan, bihar eta etzi izango dira Euskal Herria plazan, 18:00etatik 21:00etara bitarte.

Galitot Teatre taldeak 20 urte daramatza antzerkiaren munduan lanean. 1994. urteaz geroztik, txotxongiloen antzerkietan aritu izan dira bereziki, eta batez ere familiei begirako ikuskizunak egiten dituzte. Beren antzerkiek Espainiako kultur ekitaldi garrantzitsuenetan parte hartu dute, eta 30 txotxongilo jaialditan parte hartu dute.

Orain artean, Galitot taldeak ikuskizun ibiltariak egiten zituen, eta eszenatoki batetik bestera aritzen ziren. Pasa den neguan, ordea, proiektu berri batekin lanean aritu dira: *Los Títeres*.

Txotxongiloekin jolasean

Txotxongiloen antzerkiei eskainitako jolasgunea da *Los Títeres*. Haur eta gaztetxoenei begirakoa den arren, edonork parte hartu ahal izango du panpinen manipulazioan eta antzerki txikiak antolatzen.

Los Títeres jarrita dagoen plazara iristean, Fustot txotxongilo erraldoiak emango die ongi etorrira bertaratuei. Haur eta gaztetxoek, besoak eta hankak mugitu ahal izango dizkiote panpin erraldoi honi, soka batzuetatik tiraka.

Instalazioa era zirkularrean antolatuta dago, eta 12 gelaxotan 90 txotxongilo inguru ikusi ahal izango dira. Gelatxo hauetako bakoitzean, manipulazio teknikak ezagutu ahal izango dituzte bisitariak. Honakoak izango dira: eskuzorroekin egindako antzerkitxoak heldu eta gazteentzat; itzal txinatarrak; harizko txotxongiloak; konoeikin egindako txotxongilo erraldoiak eta azkenik, sorkuntza eta eraikuntza lantzeko gunea bat. Azken gunea honetan, haur bakoitzak bere txotxongiloa motatu ahal izango du, bere irudimena erabiliz. Hitz batean, oholtzaren atzean dagoena ezagutzeko aukera izango da.



Tolosa eta Leitza egin zituzten elkarretaratzeak. HITZA

Indarkeria sexistaren aurka «jendarte eredu berri bat» beharrezkotzat jo dute

Aste honetan gertatu diren erailketak salatzeko elkarretaratzeak antolatu zituzten

Itzea Urkizu

Azken aste betean hiru emakume erail dituzte Euskal Herrian. Gertaera hau salatzeko, elkarretaratzeak deitu zituzten Tolosa eta Leitza.

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko bilkurak Emakumeen Mundu Martxako Plataformak antolatu zituen, ondoko eragileak daude bertan: Bilgune Feminista, ELA, LAB eta EHNE.

Elkarretaratzeetan, idatzi bat irakurri zuten antolatzaileek, euren salaketa agerian uzteko. Azken astean hiru emakume erail izana «indarkeria patriarkalaren eragina» dela nabarmendu zuten. Emakumeen aurkako indarkeria arazo politiko «darrizat» hartu zuten, eta auzi honi «ezinbestean irtenbide bat» emateko beharrena deia luzatu zuten.

Sexismoa erasoetan

Emakumeen kontra burutzen dituzten eraso guztiek, «esplizituki edo inplizituki sexismoa» arrazoi

nagusi duela diote; erasoetan edo hilketetan, beraz, emakume izateak zerikusi handia duela uste dute Emakumeen Mundu Martxako Plataformako kideek.

Gizarteko arazo honen oinarria jendartean dagoen antola-

Gizarte eredu berri bat beharrezkoa dela aldarrikatu zuten elkarretaratzeetan

«Minduta eta haserre» azaldu zuten euren burua, azken erailketengatik

«Emakumeen aurkako indarkeriak ezinbestean amaitu behar du»

menduan hasi, eta bizitzako esparru guztietara zabaltzen dela azaldu zuten, eta horrenbestez, «egiturazko indarkeria» baten aurrean gaudela.

«Minduta eta haserre gaude»

Elkarretaratzerantz bertaratuek, «minduta eta haserre» azaldu zuten euren burua, emakumeen aurkako erasoek eta indarkeriak «etenik ez duelako». Bide beretik,

egungo gizartean gertatzen den giza eskubide urraketa «larrientariko» emakumeen aurkako indarkeria dela nabarmendu nahi izan zuten.

Erailketak «ozen» salatuz

Durango, Portugaleteko eta Hernaniko azken erailketak «ozen» salatzeko bildu ziren elkarretaratzeetan.

Lehenik eta behin, emakumeen senide nahiz lagunei «elkartasun eta babes osoa» adierazi nahi izan zieten. Honen ondoren, erakunde publikoenganako mezua zabaldu zuten: erakunde publikoek indarkeria sexistaren aurrean erantzukizun handiagoa hartzea eskatu zuten.

Zehazki Hernaniko Rosario Romanen kasuan, salaketak jarrira egon arren, izandako «babes faltaren eta erakundeek hartutako neurrien erantzuleak» zein diren argitzea nahi dute.

Honen harira, borondate politikoa eskatu zieten agintariei, bai jarritako neurriak, protokoloak eta antzekoak aurrera eramateko aurrekontuak onartzu, eta baita euren arteko koordinazioa landuz ere. Indarkeria sexista konpontzeko, jendarte eredu berri bat «beharrezkoa» dela azaldu zuten.

● tolosa@hitza.info



Plazetarako prestatu dute *Los Títeres*. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Bengoetxea VI.a eta Irujo lau t'erdian lehiatuko dira

Gaur goizean Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatuko dute Nafarroako lau t'erdiko finaleko partida

E. Maiz Leitza

Uda iristearrekin batera pilotariak udako txapelketak izaten dituzte. Iruñean urtero jokatzeko den San Ferminetako torneo oso ezaguna da. Aurtengo Nafarroako lau t'erdiko txapelketako finala, iaz bezala, Juan Martinez de Irujo eta Oinatz Bengoetxearen artean jokatuko dute. Gaur 11:30etik aurrera izango da.

Xala eta Olaizola II.aren arteko Buruz Buruko finalak tartean harrrapatu zuen Bengoetxea VI.a lei-

tzarra. Azkenean ez zuen berak jokatu, eta Nafarroako Lau t'erdikoan hartu du parte. Oinatz Bengoetxeak, Iker Arretxeren aurka lortu zuen finalerako txartela. Gaur, iazko arantza ateratzeko Martinez de Irujoren aurka txapela eskuratzeko saiatuko da.

Bikotekako San Fermin Torneoan ere parte hartuko du leitzar gazteak, eta atzean Berbiz izango du lagun. Ligaxka formatua izango du torneoak. Olaizola II-Albisu eta Xala - Paskual bikoteen arteko partidako galtzaileen aurka jokatu beharko dute igandean. Beste bikoteak, Berasaluze VIII eta Begino, eta Titin III eta Zubieta dira. Hauek zain izango dituzte, Irujo eta Merino II.a. Hilaren 12an irabazleak direnen aurka jokatu beharko dute, finala, hilaren 14ean jokatuko da.

→ Laburrak

Herriko jaien balorazioa egiteko bilera, gaur

ANOETA » Anoetako Korputz Jaiak pasata, jai batzordeak herriko festen balorazioa egiteko bilera bat egin nahi du. Herriko taldeei eta herritar guztiei dei egiten diete balorazioa egitera gerturatzeko. Bileran gaur, hilak 7, 19:00etan izango da udaletxean, eta ateak zabalik izango dira herritar guztientzat.

Eresargi Abesbatzaren 25 urtetako DVDa salgai dago

VILLABONA » Eresargiren 25 urteko DVDa salgai jarri dute. Eresargi abesbatzak 25 urte ospatzeko kontzertua grabatu zuen eta DVDa atera dute. 10 euro ordaindu beharko du nahi duenak. Horren orogarria izan nahi duenak, Eresargi Abesbatzakoekin harremanetan jarri beharko du, edo 658 72 06 64 eta 943 69 14 11 telefono zenbakietara deituz.



Hiru urtetik gora, ez dago adin mugarik izena emateko. HITZA

Oinkarin matrikula egiteko aukera dago gaur eta bihar

Oinkari dantza taldean izena emateko aukera izango da 18:00etatik 19:30era liburutegiaren gaineko gelan

arduradunekin harremanetan jartzeko 660 13 93 80 telefono zenbakira deitu daiteke, edo harremanak@oinkari.net helbide elektronikora idatzi daiteke.

Entseguak Txermingo Jesusen Bihotza Ikastolan burutzen dira, eta 11 hilabeteko iraupena dute (irailetik uztaila bukaera bitarte). Azken urteetan, bertako kideek helduen talde bikaina dutela martxan azpimarratu dute, eta adin mugarik ez dagoela bertan izena emateko.

Oinkari dantza eskolak, urtean zehar hainbat emanaldi egiten ditu, eta urteroko dantza saioa burutuko du herriko Santio Jaietan. Aurten Santa Ana egunean izango da, hau da, uztailaren 26ean, Villabonako Olaederra kiroldegian.

Eneritz Maiz Villabona

Oinkari dantza taldeak bere ikastaroan izena emateko epea zabaldu du. Ikastaroa, euskal dantzak ezagutu eta disfrutatzen gogoia duten, eta hiru urtetik gorako haur, gazte edo gurasoei zuzendua dago.

Gaur eta bihar, 18:00etatik 19:30era bulego bat irekiko dute Villabonako Liburutegiaren gainean, eta interesa duenak bertara jo dezake izena ematera. Bestela,



DVDaren azala. HITZA

Irudia



URBIETA ETA GALARRAGA, TXAPELDUN

2011ko Usubilko Pilota Txapelketako finalak larunbatean, hilaren 2an, jokatu ziren. Nagusien mailako txapela eskualdera etorri zen. Xabi Urbietari asteasuarra eta Koldo Galarraga bidegoian goa izan ziran irabazleak. Final gogorra jokatu on-

doren, 22 eta 15 amaitu zen partida. Bero handia egin zuen, eta eskualdekoek Alegria eta Huarte nafarrak izan zituzten arerio, eta gogorak gainera. Txapelketako pelotaririk onenaren saria berriz, Xabi Urbietari eman zioten. HITZA

www.euskalherriko **PLAZA**.com

ESKAINITZA
(uztailaren 30era arte)



SOLAGÜEN

12 botilako kaxa: **43 €**

Ardo zuri hau egiteko, viura mahatsa erabiltzen dugu, erabat. Mahatsondoek 46 urte dituzte, batez beste, eta 500 eta 560 metroko garaieran daude. Mahatsa eskuz biltzen da.



La Maja

6 botilako kaxa: **36 €**

Oliba olio birjina estra. %100 arbekina. Nafarroako Oliba sor-markakoa. Hotzean egina da, ollibak bildu eta hamabi ordu igaro baino lehen.

Eskaria egiteko, sartu www.euskalherrikoplaza.com helbidean



Binefarko titiriteroen ibilbidea eta garapena ikus daiteke Topic-eko erakusketan. A. IMAZ

Binefarko titiriteroen altxorak ikusteko aukera dago Topic zentroan

Urriaren 2ra arte egongo da zabalik erakusketa; bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen du Topic-ek

Asier Imaz

Tolosako Topic-en Binefarko titiriteroen erakusketa dago. Uda guztia zabalik egongo da, urriaren 2ra arte ipini baitituzte ikusgai Binefarkoen altxorak. Aragoiko taldeak Haurrentzako Antzerki Sari Nazionala eskuratu zuen 2009an, eta harreman estua du Tolosarekin.

Udako ordutegia, irailaren 30a bitarte, ondorengoa da: Lanegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Asteburuetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Bisita gidatua egin nahi duenak, 943 65 04 14 telefonora deitu behar du.

Ekainaren 30ean zabaldu zuten Topic-eko erakusketa berria. Binefarko titiriteroak bertan izan ziren, Euskal Herria plazan doako ikuskizun bat eskaintzen. Ondoren, erakusketa zabaldu zuten. Bertan izan zen, besteak beste, Espainiako gobernuaren azpiordezkarria.

30 urte panpin artean

Paco Paricio eta Pilar Amorosek sortu zuten konpainia duela 30



Topic-en bigarren solairuan dago erakusketa. A. IMAZ

urte Binefarizeneko Aragoiko herrixkan. Gaur egun, txotxongilolari gehiago dituzte eurekin, baita Txotxongiloen Etxea ere, Topic-en ahizpa omen dena, Huescako Pirinioetan dagoen Abizandan herrian kokatua.

Urte guzti hauetan abentura asko bizi izan dituzte beraiek sortutako pertsonaien eskutik, horietako asko Tolosan bertan aurkeztu dira. Horrez gain, munduko txotxongilo jaialdi garrantzitsue-

netan parte hartu dute, sari garrantzitsuak lortuaz.

Binefarko titiriteroak beraien lanaren duintasunagatik nabarmentzen dira, beraien lanek islatzen duten gizarte arazo arduragatik, ikusleari eskaintzen dioten gertuko tratuagatik, haur eta heldu, eta, orokorrean, guztien ganako duten eskuzabaltasunarengatik eta baita txotxongilo munduari dioten maitasunagatik ere.

HITZAren itzaletik ibiltzeko...

Egin harpidedun uztailearen 29a baino lehen eta jaso eguzkitako hau opari

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info



hitza info



Eguzki talde ekologistak txartelaren igoerak erabiltzaile apalenei eragiten dietela salatu du. I. GARCIA

Treneko txartela %5 garestitu dela salatu du Eguzki taldeak

Ekologistentzat igoerak «governuak energia eta garraioarekin lotutako gaitan daraman norabide eza» uzten du agerian

Tren txartelaren prezioa otsailean jeitsi zuten arren, berriro igo dutela salatu dute

Itzea Urkizu

Eguzki ekologista taldeak, Renfe-k aldirietako nahiz distantzia ertaineko tren txartelaren prezioan aplikatu berri duen %5eko igoera salatu du.

Espainiako Gobernuak pasa den otsailean, Energia Aurrezteko Plana abian jarri zuen.

Plan honen barruan hartutako erabakien artean, entzutetsuena ibilgailuei jarritako 110 km orduko abiaduraren mugarena izan zen. Beste erabaki bat, ordea, aldirietako eta distantzia ertaineko tren txartelaren prezioa %5 jaistearrena izan zen.

Bere garaian, Eguzki ekologista taldeak «oso interesgarritzat» hartu zuen berri hau, nolabait, norberaren ibilgailuak hainbeste erabili beharrean, herritarrek garraio publikoa erabiltzera bultzatzen zituelako.

Duela aste bete inguru zabaldu zen, ordea, berria: uztailetik au-

rrera, ibilgailuek 120 km orduko abiaduran ibili ahal izango dira berriro errepideetan. Horrekin batera, aldirietako eta distantzia ertaineko tren txartelaren prezioa, berriro %5 bat igoko da.

«Adarjotzea iruditzen zaigu»
Ekologisten Eguzki taldeari, gobernuak hartu berri duen neurria «adarjotze hutsa» iruditzen zaio.

Espainiako Gobernuaren Energia Aurrezteko Planaren baitako erabaki honek, erregaia aurrezteaz gain garraio publikoaren erabilera sustatzea zuen, ofizialki, helburu nagusia.

«Orain, petrolio upelaren prezioa otsailean bezain garestia ez denez, badirudi ez dela beharrezkoa, ez erregaia aurrezteaz, ezta garraio publikoaren erabilera bultzatzea ere», dio Eguzki taldeak.

Bide beretik, Renfe-ko tren txartelaren prezioak erregaian pre-

zio igoerarekin argudiatu izan dituzte beti; Eguzki ekologista taldeak, «paradoxikoki» treneko bidaien prezioa eta erregaia batera igo izana salatu du.

Herritarrengan eragina

Treneko txartelaren prezioan %5a igo izanak, «beste behin ere gobernu espainiarrek energiaren, garraioaren, eta oro har, ingurumenarekin loturiko gaien inguruan daraman norabiderik gabeko politika» erakusten duela nabarmendu du Eguzki taldeak.

Izan ere, «onartezina» iruditzen zaie hartutako neurria, maila ekonomiko apalena duten herritar eta erabiltzaileei eragiten baitie batez ere: «Emakumeak, ikasleak, jubilatutak, langileak, etorkinak, eta abar dira garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak».

Tren bidaien prezioen %5eko igoera honekin, 2011 hasierako prezioetara itzuliko garaia esanenez, «igoerari garrantzia kentzen» saiatuko direla ere aipatu dute Eguzkiko partaideek.

Honen aurrean, Renfe-k azken hiru urteotan ezarritako «gehigizko» prezio igoerak, KPIa baino askoz ere altuagoak izan direla ere argitu nahi izan dute, eta gutxira %17,4ko igoera osatzen dute: 2009. urtean %6,3a igo zuten;

2010ean %6a eta BEZaren %2a; 2011n, berriz, %3,1eko igoera ezarri zuten.

Aipaturiko prezioen igoera honetaz gain, Eguzki ekologista taldeak Gipuzkoako erabiltzaileek

↓ Aldiriko prezioak

TXARTEL ARRUNTA

Eremu bat. 1,35 euro.

Bi eremu. 1,55 euro.

Hiru eremu. 2,15 euro.

Lau eremu. 2,80 euro.

Bost eremu. 3,15 euro.

Sei eremu. 4,20 euro.

JOAN ETORRIKO TXARTELA

Eremu bat. 2,20 euro.

Bi eremu. 2,35 euro.

Hiru eremu. 3,50 euro.

Lau eremu. 4,60 euro.

Bost eremu. 5,20 euro.

Sei eremu. 6,50 euro.

HILABETEKO TXARTELA

Eremu bat. 29 euro.

Bi eremu. 36,35 euro.

Hiru eremu. 53,75 euro.

Lau eremu. 61,75 euro.

Bost eremu. 71,90 euro.

Sei eremu. 83,75 euro.

Renfe-ko instalazioetan jasan behar izaten dituzten oztopoak ere aipatu nahi izan dituzte: erabat utzita dauden geltokiak, sarbide arriskutsuak, ia igaro ezin diren oztopo arkitektonikoak hainbat geltoki txikitik (hauetako gehienak komunik gabe), eta abar.

Hitz batean, «narbarmenki hobetu daitekeen zerbitzu bat» eskaintzen dute, Eguzkiren arabera.

Eskaera «bateraezinak»

Erakunde publikoetatik garraio publikoa gehiago erabiltzeko egiten dituzten deialdiak «bateraezinak» direla salatu du Eguzkik. Lehenik eta behin, aipaturiko igoerek zaildu egiten dute herritarrek garraio publikoa gehiago erabiltzea.

Honez gain, Renfe-k Gipuzkoan duen tren linean, deialdi horiekin batera hainbat hobekuntza eskaini beharko lituzkeela uste dute Eguzkiko kideek.

Hasteko, trenen maiztasuna hobetzeko modukoa dela diote, eta baita denbora ere.

Era berean, geltoki nagusi nahiz txikienetako zerbitzuek eta sarbideak ere berritu egin behar dira euren ustez; «trena esku-garri egin behar da, herritarrek erabil dezaten».

Autobusaren bitartez Gipuzkoako mendiak ezagutzen

Autobusa bihar egongo da Berastegin eta Ibarren. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutzaren Gizarte Ekintzak sustatzen duten *Gipuzkoa mendiz-mendi, mendez-mende* ekimena zabalteko unitate mugikorren bisita izango da Berastegin eta Ibarren. Autobusa Berastegin ikusi ahal izango da dohainik, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara. Ibarren, berriz, San Bartolome plazan kokatuko da honako ordutegi berean.

M.U.

Gipuzkoako mendiak ezagutzeko aukera egongo da datozen egunotan Berastegin eta Ibarren. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutzaren Gizarte Ekintzak sustatzen duten *Gipuzkoa mendiz-mendi, mendez-mende* ekimena zabalteko unitate mugikorren bisita izango da Berastegin eta Ibarren. Autobusa Berastegin ikusi ahal izango da dohainik, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara. Ibarren, berriz, San Bartolome plazan kokatuko da honako ordutegi berean.

Gipuzkoa lurralde menditsua da. Gizakia Historiaurretik bizi

izan da Gipuzkoako erliebeetan eta, ondorioz, erliebe horiek giza aztarnaz beteta daude, eta bizitzaz betetako iraganaren isla dira. Edozein bazter natural historiaz beteta dagoenez historia hori ezagutzeko aukera ematen du autobus honek.

Mendeetan zehar garaturiko jardueren ondorioz, gune ez-hiritarrak, balio hautemangarrien zein hautemanezinen erreserbetan bilakatu dira, eta hori oso garrantzitsua da.

Honen bidez, Gipuzkoako kultur paisaia horiek ezagutzen ditugun neurrian estimatzen ikasteko balio izango du. Eta estimatu ahal indartzen ere lagundu ahal izango dutela uste dute, eta horrela gugan haiek babesteko joera zabalteaz izango du helburu autobusak.

Proiektu honen bidez, «Gipuzkoako aurrera sendo» jarrai dezaten nahi dute, horretarako «neurri zehatz eta eraginkorrek» hartu behar direla ere aipatzen dute.



Aurten hirugarrenez, balkoi, terraza, lorategi eta baratzeen txapelketa antolatuko du kultura batzordeak. HITZA

Terraza, lorategi edota baratze politikak izateak saria izango du Berastegin

Txapelketan parte hartu nahi dutenek udaletxean eman beharko dute izena hilaren 15a baino lehen

M. Ugartemendia Berastegi

Udan lorez eta landarez beteta egoten dira gure lorategiak eta zelaiak. Horregatik, uda garaian, urterto bezala, Berastegin balkoi eta terraza, lorategi eta baratze politenak saritzeko txapelketa egiten dute. Ekimen hau kultura batzordeak antolatzen du. Aurten terraza eta lorategien txapelketa egiten duten hirugarren aldia izango da, eta baratze txapelketa egiten duten bigarrena.

Txapelketan parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena. Horretarako bi aukera dituzte: udaleko telefonora deitzea (943 68 30 00) edo udaletxeko

harrera bulegora bertara joatea. Izena emateko epea hilaren 15ean hasi zen, eta hilaren 15era arte eman ahal izango da. Eta, honako datu hauek eman beharko dira: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, zein txapelketatan parte hartu nahi den, eta baratze txapelketan parte hartu nahi izanez gero, baratzea non kokatuta dagoen. Parte hartzaileek nahi izanez gero hiru txapelketatan parte hartzea izango dute.

Izen-ematea amaitu ondoren, hilaren 23ko goizean, batzordekideak eta lorezaintza teknikari bat etxez etxe ibiliko dira puntuaketa egiten. Baratzeen kasuan, berriz, bi puntuaketa-aldi izango dira: bata, uztaileen bukaeran, eta bestea, irailaren erdialdean eta kasu honetan, barazki-teknikari batek egingo du balorazioa.

Puntuaketa hau egiterakoan ateratzen diren argazkiak alde batetik, Berastegiko web orrian zintzilikatuko dituzte; eta, beste-

tik, Gaztainondo Elkartean egongo dira ikusgai, herriko festetan.

Irabazleen sariak

Txapelketa honetan puntuaketa-rako kontutan hartuko dituzten oinarriak kolorea, landareen barietatea eta konbinaketa, estetika eta txukuntasuna izango dira.

Guztira bederatzita sari banatuko dira, modalitate bakoitzean hiru. Sari banaketak, leiho, balkoi, terraza eta lorategienak, Salontzo jaietako herri-afarian egingo dira. Baratzearena, berriz, kultur astean egingo da, azokaren egunean.

Lehenengo urtean hartutako erabakiarekin jarraituz, sariak ziklikoki banatuko dira ahalik eta partaide ezberdin gehien saritu ahal izateko, hau da, iazko garaileek aurten ez dute saririk jasotzerik izango, baina datorren urtean bai. 2009an saridun izan zirenek, berriz, aurten saria jasotzeko aukera izango dute.

→ Laburrak

Herri afarirako txartelak salgai daude

BERASTEGI › Salontzo jaietako hasiera emateko, urtero bezala, herri afaria antolatuko dute, Berastegin. Aurten abuztuaren 5ean izango da afaria, eta txekorra buruntzian jan ahal izango da. 12 urtetik beherakoek 9 euro ordaindu beharko dute txartelak, eta beste guztiek 17 euro ordainduko dute. Txartelak Urepele Elkartean, Zelai Tabernan eta Basurde Elkartean daude salgai. Epea hilaren 29an amaituko da.

Danborradan parte hartzeko entseguak

IBARRA › San Bartolome jaietako danborradaren prestaketa lanekin eta entseguen hasi dira Ibarren. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi duten 2007 urtetik atzera jaiotako haur eta gaztetxo guztiek Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Txumitza, Danon, Ostaize eta Gaztelubide tabernetan zein eta Kultur Etxean jarriko diren zerrendatan izena eman behar dute. Danborradako hurrengo entseguak hilaren 13an izango da. 20:00etan izango dute hitzordua Belabieta kiroldegian. Ezinbestekoa da gutxienez 2 entseguetan parte hartzea.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



XARI ZINKUNEGI SOROA



Zure izakera jator eta umoretsua beti izango dugu gogoan.



Su-Berri pilota elkarte

Anoetan, 2011ko uztailaren 7an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Irura



Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

ZAPI ETA GERRIKO GORRIAK SOINEAN HARTUTA

Tolosako Alde Zaharreko bizilagunek antolatutako San Fermin Txiki jaiak gaur izango da; 12:00etan botako dute txupinazoa plaza Berriko kioskotik. Gaurkoa baino lehen, hala ere, Iruran izan duten sanferminak ospatzen hasteko aukera. Udalak antolatzen duen udako

ludotekako haurrek atzo bota zuten txupinazoa udaletxeko balkoitik, beheran zuriz jantzita eta zapi zein gerriko gorriak hartuta zeuden haurrak zain zeudela. Suziria bota ondoren, entzierro txikia korritzeko aukera izan zuten Irurarrek. M. UGARTEMENDIA

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Gazte Topagunearren Uda Gaztea ekimenaren barruan, gazteek gaur, pizza tailerra egingo dute.
- **Tolosa.** Lizardi elkartekoek Pello Odriozola aske uzteko eskatuz elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean Trianguloan.
- **Villabona.** Aizkardi mendi elkarreak Pirinioetara irteera an-

tolatu du iganderako. Honako ibilbidea egingo dute: Canfranc-Collarada-Villanua. Larunbatean, 19:00etan, irtengo dira Olaederra kiroldegitik Villanua aldera eta bertan emango dute gaua. Hurrengo egunean irtengo dira Canfranc alderuntz. Izena emateko 649 717182-ra deitu behar da 20:00etatik 22:00etara. Bihar da izena emateko azken eguna.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** Ikasturtean zehar egon diren tailerretan egindako lanak ikusi daitezke Kultur Etxean uztailearen 8a bitarte.
- **Tolosa.** Ikasturtean zehar egon diren kultur tailerretan egindako lanak Aranburu jauregian hilaren 9a bitarte.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketa Ekomuseoan, iraila arte.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroitz auzoa, 9. 943 67 5118.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

3008 *GURE INGENIARIEN NEURONA GUZTIAK DITUZU ESKURA HEMEN* **5008**

**PROBATUZ GERO,
HARTUKO DUZU**

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**P-3008
P-5008**

Ertausketa zero tribu bermia martxan!
Ertausketa labe propozatzen.